

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko uztailaren 18an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

BIZIPOZA ELKARTEAREKIN ZUZENEKO DIRULAGUNTZA HITZARMENA

Hitzarmen honen xedea da BIZIPOZA JAIA 2024 Hernanin antolatzeagatik dirulaguntza ematea Bizipoza Elkarteari.

Bizipoza irabazi asmorik gabeko gizartegintza egitasmoa da euskaraz elkartasuna sustatu nahi du auzolanaren bidez: izaera bereziko gaiak lantzen dituzten eta haur eta familien ongizatea helburu duten elkarteei laguntza afektiboa eta materiala eskaintzea du xede eta elkarte, haur eta familia hauek transmititzen dituzten baloreak jasoaz aberastu, hezi eta gizarteratzea.

Elkarteko helburuak bat datoz Herriko Udalaren 2023-2025 dirulaguntzen plan estrategikoan jasotako 2. lerroarekin:

Helburu estrategikoa:

- 1. Hezkuntza-berrikuntza sustatzea eta udalerriko kultura-eskaintza hobetzea, udalerriko bizilagunei oro har gai hauekin lotutako jarduera eta proiektuak zuzenduz: hezkuntza, kultura, berdintasuna, ingurumen- aniztasuna eta inklusibotasuna.*
- 2. Herrian garatuko diren hezkuntza-egitasmoak hezkidetzailleak izatea, pertsonen arteko tratu onak eta parekideak sustatuko dituztenak, eta indarkeria matxista prebenituko dutenak.*

Dirulaguntza, Hernanin antolatu zuten jaialdirako eta haren prestaketarako izango da. Jaialdiak bere baitan hartzen ditu:

- Ikastetxeetako sentsibilizazio saioak.
- Eta eguna bera

Dirulaguntzaren zenbatekoa: 20.000 €

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2024ko uztailaren 11ko bilkuran aho batez emandako irizpena

Horiek horrela, Gobernu Batzarrak **AHO BATEZ erabaki du**

2024ko udal aurrekontuetan jasotako dirulaguntza bideratzea hitzarmenean jasota dagoen ordainketa moduan eta epeetan: Dirulaguntza onartutakoan %75eko ordainketa eta justifikazioa aurkeztutakoan %25a.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokizu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2024ko uztailearen 18an

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

Hernaniko udal-Idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



EKS | CSV: **ESKUefce7364-e27d-4e4b-ae73-30b836c50b7a**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>